

Irakaslea Haur Hezkuntzako Berrikuntzan Aditu Titulua

Tituluak Haur Hezkuntzako profesionalen profila elikatu nahi du, irakasleak ahalduntzeko berrikuntza prozesuetarako. Eragin nahi du lanbidearen alderdi pertsonal eta profesionalen orekan, bertatik berrikuntzarako beharrezko konpetentziak aberasteko.

Gaia Hezkuntza

ECTS/orduak 300 ordu

Egutegia 2018/09/29 - 2019/06/30

Tokia Aretxabaleta <http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/zer-den-huhezi/non-gauden>

Hizkuntzak Euskara

Modalitatea Aurrez aurrekoa

Helburuak

Irakaslea Haur Hezkuntzako Berrikuntzan Aditu Tituluak eragin nahi du Haur Hezkuntzako profesionalen prestakuntzan. Gaur egungo irakasle lanbidean eta berrikuntza prozesuetan ager daitezkeen beharrei erantzunez, bilatu nahi du HHko profesionalaren profila elikatzea eta **irakaslea ahalduntzea lanbidearen alderdi pertsonal eta profesionalaren orekan eraginez.**

Helburu horiei begira, hiru eremutan lan egin nahi da:

1. **Irakasle kontzientea harremanetan.** Irakaslea bera da bere lanbidearen erreminta garrantzitsuena. Harremana zutabe duen lanbide horretan bere buruaz ahalik eta kontzientzeena izatea lehen mailako helburua da, haurrekin, familiekin, lankideekin edo hezkuntza komunitateko beste eragileekin eraikitzen dituen harremanak baldintzatuko dituelako haurren garapena eta ongizatea eta eskolako proiektuaren bilakaera. Aditu titulu honetan parte hartuko duten irakasleek kontzientzia hartzeko prozesuan murgilduko dira, norberaren gorputzetik abiatuta, sentsazioa, emozioa, pentsamendua eta jokabidea integratuz. Gorputzaren berariazko lanketatik besteekin eraikiko dituen harremanetan eragin positiboa bilatzen da **autoezagutzarako** eta autoerregulaziorako bidea jorratuz. Azken finean, berrikuntza prozesu baten oinarrian dago norberaren “berrikuntza”.
2. **Irakaslea teorien integraziotik berritzen.** Berrikuntza prozesuetan murgilduta daude bertako eskola ugari eta hainbat eremutan aldaketak ematen ari dira: espazioaren eta denboraren antolaketak, materialak, irakaslearen rola, ebaluazioa... Zenbait teoriatan oinarritutako berrikuntzak izan ohi dira baina, maiz, ez da teoria horien integraziorik ematen. Horregatik, aditu titulu honetan bilatuko da berrikuntzak egiterako orduan **teorien integrazioa** ematea,

ikuspegi horien esanahian sakonduz beraien errealitatera egokitu ahal izateko. Horretarako, ezagutu eta aztertuko dira teoriak praktikan gauzatzeko hainbat esperientzia.

3. **Irakaslea taldean berritzen.** Hezkuntzan ematen den berrikuntza elkarlanean oinarritzen da. Komunean proiektu bat eraikitzeke gaitasuna ezinbestekoa da eta, horrekin batera, **irakasle taldearen kohesioa** gako da. Irakasleen arteko harremanek eta inplikazio eta konpromiso mailak baldintzatuko dute berrikuntza prozesuaren gauzatzea eta iraupena. Horregatik, aditu titulu honetan parte hartuko duten kideek, ardatz hartuta talde lana, komunikazio eraginkorra eta guztien ongizatea, modu esperientzialean biziko dute kohesiora eramango duten prozesu bat.

Eraldaketa pertsonala eta praktikaren hausnarketa esanguratsua izango ditugu lan egiteko zutabe eta bertatik eraikiko dira Haur Hezkuntzan berrikuntza prozesuak garatzeko konpetentziak.

Nori zuzendua

Lanean ari diren Haur Hezkuntzako Graduatu, Diplomatu eta Goi Teknikariei zuzenduta dago. Aditu titulua bereziki interesgarria da bere lan eremuan berrikuntza prozesuan murgilduta edo murgiltzear dauden profesionalentzat.

Egitaraua

Aditu tituluaK 12 ECTS ditu honako modulutan antolatua:

- **I. modulua.** Auto-ezagutza berrikuntzarako prozesuan.
- **II. modulua.** Nire harremanak besteekin: umea, familia eta lankideak.
- **III. modulua.** Berrikuntzarako teoria ezberdinen integrazioa: denbora, espazioa, materialak eta ebaluazioa kudeatzeko eta irakasle gisa esku-hartzeko.
- **IV. modulua.** Nire bizipenak: nire praktikaren gaineko hausnarketa.
- **V. modulua.** Unibertsitate-aditua izateko ikastaroaren amaierako memoria.

Aditu titulua bukatutakoan, ikasleei eskainiko zaie mintegiak egiteko aukera hasitako bideari jarraipena emate aldera.

Metodologia

Norberaren praktikaren bizipenetatik talde hausnarketa partekatuko da. Talde dinamika bibentzialak egingo dira, intra, inter eta talde osoko prozesuak aintzat hartuta.

Egutegia

Aditu tituluaren hasiera: 2018ko irailaren 29a.

Aditu tituluaren amaiera: 2019ko ekainaren 30a.

12 ECTSko aditu titulua da (300 ordu). Saio presentzialak honela antolatuko dira:

- 3 asteburu aterpetxe batean:

- Larunbata: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00
- Igandea: 10:00-14:00.
- 7 larunbata Aretxabaletako campusean: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Irakasleak

Hazitegi ikerketa taldeko kideak izango dira erreferentziazko irakasleak:

- Itziar Arregi
- Alexander Barandiaran
- Iñaki Larrea
- Iratxe Ramirez
- Eider Salegi
- Naiara Zia

Matrikula

- Izen ematea: apirilaren 9tik irailaren 17ra.
- Dokumentazioa aurkeztu: azken eguna irailak 17.
- Matrikula epea: irailak 26 eta 27.

Koordinazioa

Alexander Barandiaran:

- abarandiaran@mondragon.edu
- 943 71 41 88 (Luzapena: 5153)

Ate irekiak

- Ekainak 7, osteguna, 18:00etan Aretxabaletako campusean.

Onarpen baldintzak eta prozesua

Aditu tituluaren parte hartzeko aurre inskripzioa egin behar da lehenik. Inskripzioa egin duten guztiei elkarrizketa egingo zaie.

Prozesuaren zehaztapena eta datak

- Inskripzioa egin: apirilaren 9tik irailaren 17ra. (Egun horretarako bete:izen-ematea <https://www.mondragon.edu/cursos/eu/gaiak/hezkuntza/irakaslea-haur-hezkuntzako-berrikuntzan-aditu-titulua/IZENEMATE-ESKAERA.pdf> matrikula eskaera orria <https://www.mondragon.edu/cursos/eu/gaiak/hezkuntza/irakaslea-haur-hezkuntzako-berrikuntzan-aditu-titulua/MATRIKULA-ESKAERA.pdf>)
- Matrikulazioa: irailak 26 eta 27.

Formularioen bidalketa

Formularioak eta informazio guztia helbide honetara bidali beharko duzu:

Ane Agirreurreta (Kudeaketa administratiborako arduraduna)

- aagirreurreta@mondragon.edu
- +34 943 71 41 88 (5124 luzapena)

Plazak

Egingo den lanaren nolakotasuna aintzat hartuta, gehienez 18 ikasle onartuko dira.

Prezioa

2.850 € (aterpetxeko egonaldia eta otorduak barne).

- 300 €ko matrikula-aurrerakina ordainduko da matrikulatzean.

Ikastetxeen bidez etorriz gero, Fundación Tripartita-k eskainitako diru-laguntzak kudeatu ahal izango dira. Diru laguntza horiek jaso daitezke baldin eta norbere izenean izan beharrean eskolak egiten badu eskaera eta eskaera hori ikastaroa hasi baino gutxienez 20 egun lehenago jasotzen bada. Eskolak horretarako Fundación Estatal para la Formación en el Empleo (FUNDAE) erakundeak diru laguntza eskuratzeko eskatzen dituenak bete beharko ditu.

Mondragon Unibertsitateko MUKide ikasle ohien elkarteko bazkideek beherapena izango dute.

<https://www.mondragon.edu/cursos/eu/gaiak/hezkuntza/irakaslea-haur-hezkuntzako-berrikuntzan-aditu-titulua/>